

Harremanak Eraikitzen tailerraren ekarpenak 2015-10-29ko saioa (Gipuzkoa)

1.2. Arreta:	
Arreta ipini eta goraiatu gelaren aurrean portaera positiboak edota errepikatzea nahi ditugun jokamoldeak.	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek aipatzen dituzte <i>ikasle ideal</i> aren ezaugarriak. - Gehiagoetan azpimarratzen ditut <i>gutxi hitz egiten duten ikasle</i> horien portaerak. - Berandu etortzen diren ikasleak, goraiatu goiz etortzen direnean. - Zozketaren bidez, HPBko ikasle bati egokitu zitzaion antzerki batean protagonistaren papera jokatzeko. Nahiz eta hasieran zalantzak izan, mantendu zuten eta oso ondo egin zuten. - Bestelakoetan oso ona ez den ikasle bati esan nion "irakurri ezazu zuk ozenki, oso abots ederra duzu eta". Handik aurrera irrati esatari bat ematen zuten... - "Ze jertse polita duzun" esan bati, eta gero ez zuten aldatzen. - Ikasleen taldetan logo bat asmatu behar zurten...eta ikasle hau, plastikan ona zenez, berari eman genion protagonismo handiena. - Saskibaloian ari ginela..."benga Eider, zu oso ona zarela honetan", jakin gabe hala al zen. - Irakasle batekin oso golden jokatu dugu, bai zuzendaritzatik, bai irakasle-taldetik, baita gurasoekin banan banan hitz eginda ere. Erabili ditugu gako-urrats gehienak. - Jarrera egokiak asko lantzen dituzte, ikasturte hasieran, irudien bitartez hormetan adierazita uzten dute. - Tutoreari komentatzen dio ikasle guztien aurrean "ze ondo dauden gelan" - Korroan eta entzuteko prest daudela esaten die. - Ardurak ematen ditu, adibidez, data idatzi. - Golden betaurrekoak lanerako bidean, kotxean, jartzea komeni da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berarentzat, bere autoestimurako, oso ona izan da. - Handik aurrera irrati esatari bat ematen zuten... - eta gero ez zuten aldatzen(?). - Handik aurrera, saskibaloian jo ta ke aritzen zen. ● Autoerregulazioa. ● Jarrerak hobetu dira. ● Parteharzte handiagoa. ● Oso ondo funtzionatzen du.

2.1 Izendatzea:

Ikasleari zuzentzen garenean, ziurtatu gutxienez behin ikasleari “begiratzeko” diogula (behatu, arretoa jarri, berarengandik gertu egon, goraiatu, lagundu e.a)

NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none">- Lehenengo klase eguna baino lehenago ikasi ikasleen izenak.- Jangelako arduraduna izanik, ikasle guztien izenak dakizki eta asko eskertzen dute.- Erregistro orri batean apuntatzen dute zeintzuk aipatu dituzten egunero.- Klasea bukatzean, “oso ondo ibai, saio polita egin duzu gaurkoan.- Arretoa berezia bikiekin, anai edo ahizpak daukateneekin eta atzerriko izenak dituzten ikasleekin.	<ul style="list-style-type: none">- Harritu ziren eta eskertzen zuten.- Eskertzen dute.- Jarrerak hobetu dira.- Gertutasuna eskertzen dute.- Ikasle grisetan sekulako eragina du.- Motibazioan eragina du.- Adi daude.

2.2 Feedback:

Ikasleari feedback positibo eta eraikitzailea eman, eta aukera eta portaera positiboetara bideratu.

NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none">- EPAn Gometsen bitartez ondo egindako lanetan.- Boligrafo gorririk ez da erabiltzen eskolan zuzenketetarako.<ul style="list-style-type: none">- Zuzenketak isilean.- Azterketak banaka banatzen ditu.- Tutorea elkartzen da ikasle guztiekin, banan banan, ebaluazio bakoitzean bi aldiz, eta elkarrizketa hasten da galdetuz: ondo al zaude? zer gertatzen zaizu?- Zerbait egin aurretik, aukeratutakoei esaten zaie “egin behar duzu atzo bezain ondo eh!” (baina, batzutan <i>atzo</i> hori denboran nahiko aurrera joan behar izaten du).- Ikasle <i>zail</i> batekin: bilerak hamabostero gauza onak adierazteko.- Gurasoekin bilera: ikasle bertan dela eta hasten gara berari galdetuz “esaidazazu ondo	<p>Nahiz eta helduak izan, asko gustatzen zaizkie. Hobeto sentitzen dira ikasleak.</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikasleek bilera horiek iristeko deseatzten izaten dira.- Animatzen dira.

<p>egin dituzun hiru gauza”. Gero jarraitzen dugu bilera.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batxilergoan: aurkezpenak egin gelakideen aurrean eta entzuleek azpimarratu behar dituzte hiru gauza on eta hobetzeko bat. - Jan-gelan baita ere “ze ondo bazkaldu duzun gaur”. 	
--	--

2.3 Urrezko momentua:	
Ikaslearekiko interesa agertu eta eskolakoak ez diren gauzei buruz ere hitz egin.	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<p>Astelehenero 5 ikasleei asteburuan zer egin duten galdetzen diete.</p> <p>Hilero ikasle guztiek hilabete horretako argazkiak bidali behar dizkio irakasleari, ondoren gelakideei kontatzen diete zer egin duten argazki horien laguntzarekin.</p> <p>Pelutxe proiektuaren bitartez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bakoitzari galdetu “zutaz ze gauza onak esango dizkiet gurasoei?” Eta gero esan. - Bakoitzari galdetu bere hobbiak eta gero kontuan izan horiek. 	<p>Asko gustatzen zaie.</p>

2.4 Zurrumurru positiboak:	
Ikasleei modu positiboan hitz egin beste heldu batzuk edo beste ume batzuk aurrean daudenean.	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio bileretan erabili dute, ikasle bakoitzari buruz zerbait positiboa esanez - Ebaluazioan ikasle bakoitzeko 2 gauza + esan behar dira. - Aholkularia, gauza positiboak bilatu, onak, eta tutoreari esan. - Aliatuak bilatu, irakasleen artean, ikasleei zerbait ona esateko, adibidez. - Ebaluazio bileretan, ikasle guztien komentario positibo bat egiteko beharra. - Ebaluazio bileretan, esaldi negatiboak positibo 	<p style="text-align: center;">eragina du.</p> <p style="text-align: center;">Ebaluaizoa hezigarria da, kualitatiboa.</p> <p style="text-align: center;">Buelta ematen diogu egoerari, kontzientzia hartzen dugu.</p> <p style="text-align: center;">Indartze positiboa bihurtzen da ikasleentzat, eta irakasleentzat.</p>

<p>bihurtu eta gero erabili zurrumurru positibo gisa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zurrumurru negatiboak moztu. - LHtik BHra pasatzean, ikasleen txostenetatik zerbait ona, positiboa bilatu eta berdez idatzi. - Irakasle gelaren funtzionamendua kudeatu, ahalik eta positiboen izateko. - HHn urtebetetzean, denen aldetik zerbait + haur horri. 	
---	--

2.5 Onarpen positiboa:	
<p>Ikasle bat gelaz kanpo aurkitzen duzunean, irribarre egin, eta modu positiboan onartzen duzula adierazi.</p>	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> ● Irrifarretsu ibiltzea pasilotatik ● Orokorrean denok egiten dute ● Pasilotik ikasleari hitz egin gustatzen zaionari buruz (futbola...). Izenak ezagutzuz, gertutasuna adierazten da. ● Denbora eman ikasleak ezagutzeko. Ikasturte hasieran, borobilean, asteburuko zerbait kontatu (zerbait polita) ● Atean agurtu, interesa adierazi. ● “Minutu bat goizero” kanta, gelan giro positiboa sortzeko. ● Patio zaintzan: hurbildu eta hitz egin, galdetu... ● Berdin kaletik topatu ezkerro, bere izena esanez. ● Maletaren jarduera (Ikasketa kooperatiboa) 	<p>Ikasleak ez direnak ere agurtzen dute.</p> <p style="text-align: center;">Eragin positiboa.</p> <p>Ikasle eta irakasleen arteko harreman hobetzen dira.</p> <p>Pasiloko harremana ikasleek asko eskertzen dute.</p>

2.6 Ikasleen ikuspuntua:	
<p>Arazo uneetan, ikaslearen ikuspuntua hartzen saiatu, eta entzuteko prest zaudela agertu.</p>	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK

<ul style="list-style-type: none"> ● Arazo bat gertatuz gero ixilik egoten saiatu eta ikasleei euren emozioak ateratzen utzi. ● Irakasleek emozioak erabiltzen dituzte. ● Denbora eman eta hitz egin lasai daudenean. ● Batzorde bat sortu ikastetxean, sortu diren arazoei buruz hitz egiteko eta jokaerak adosteko. ● Arazo bat sortzen denean: Arazoa dagoela berbalizatu, eta esan nahita "Postponer" egiten dugula: "geroxeago hitz egingo dugu, beranduago". ● Erreferente bat izatea konfiantzaz hitz egiteko. ● Ikaslea lasaitzeko zerbait egin: komiki bat irakurri, edo mugimendua... Ondoren hitz egin. ● Eskerrak eman beti. ● Kontuz ibili behar da ironia ez bihurtzeko. Besteak nola ulertu dezakeen aurreikusi. 	<p>Hunkituta gelditzen dira.</p>
--	----------------------------------

<p style="text-align: center;">2.7 Umorea</p> <p>Gelan umorea erabili.</p>	
<p style="text-align: center;">NOLA?</p>	<p style="text-align: center;">ONDORIO POSITIBOAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Umorea erabili norbera soltatzeko ● Klasea hasi txiste bat kontatzen (ikasleak, txandaka). Lehengo egunean, Golden programa aipatu, argudiatzeko. Irakasleak barre egitea. harremana hurbiltzen du asko. ● Irakasleak bere buruaz barre egitea baloratzen dute. 	<p>Giroa asko hobetzen da Giroa asko lasaitzen da</p>

<p style="text-align: center;">2.8 Profil soziala erabiltzea</p> <p>ikaslearen gaitasunak, trebeziak, lan edo portaera onak gelan erreferentzia bezala erabiltzea.</p>	
<p style="text-align: center;">NOLA?</p>	<p style="text-align: center;">ONDORIO POSITIBOAK</p>
<p>- <i>ikasle grisekin</i> egin du. Oso ikasle lotsatia zen, ondo egiten zuen gauza bat goraiatu zion eta emaitzak</p>	<p>- portaera goraiatzean txalotu zioten irakasleari</p>

<p>asko hobetu zituen</p> <ul style="list-style-type: none"> - talde batek etiketa oso txarra zeukan. Estrategia hau (talde bezala oso gustura zegoela esanez, oso onak zirela...) guraso gela bileran aplikatu zuen eta taldearekiko zeuden espektatibak zeharo aldatu ziren - DBHn aipatu eta goraipatu egiten du talde bezala ongi egiten dena. Ikustarazi nahi den hori nabarmentzeko - LHn eseritzea asko kostatzen zitzaien talde batean, ondo eserita zegoen bati <i>oso pozik zegoela ondo eserita zegoelako</i> esan eta handik aurrera denak ondo eserita aurkitzen zituen. - Taldeka eserita dauden gela batean, neskatxo bati esan <i>zein ondo eta txukun idazten duzun</i> eta neska hori taldez talde pasatzean denak kutsatu ziren. - Eskerrak eman batxilergoan. - indartu nahi zen profila arbelean idatzi - Motxila potentea duen ikasle batekin zuten erronka eskolara etortzea zen. Behin etorri eta hori goraipatu egin zitzaion. Harrez geroztik, geroz eta lehenago etortzen hasi zen. Agian akademikoki ez zuen aurrerapen handirik egin baina emozionalki bai. <ul style="list-style-type: none"> • 4 urteko gela batean, negarrez egunero egiten zuen ikasle batekin, Puzzle pertsonalizatu bat prestatu (argazki batekin) eta negar egiten ia ez zuen egunean puzzle zatia eman. • DBHko gela batean, disrupzioa eta familia arazo larriak dituen ikasle batekin...Marrazkietan oso oso ona, eskatu zitzaion MURALetan berak marrazkiak egitea. • Ikasleen giza profila horma-irudi batean kokatzea kurtso hasieran. Horretarako: " Orrialde oriak" edo " La maleta" estrategiak erabili. Paretan horma-irudia ipini eta ikasturtean zehar beste datuekin osatu. Irakasleek erabiliko dituzte horko datuak, goraipatzeko, parte hartze aktiboa lortzeko edo galdetzeko... • URTEBETETZEETAN zerbait sistematizatzea (berdin da zein mailan): Abestia / "Markaorrialde pertsonalizatuak" oparitzea/zerbait jateko eskeintzea...Hau ere irakasleekin egin da.4 • Taldeak goraipatu egoera ezberdinetan eta lortu nahi ditugun helburuekin loturak bilatuz eta puntualki pertsonak ere... • Argudioak ematea balorazio positiboetan... • Giza profila erabiliz...laguntza bereziak eskatzea, galderak egitea...Ad: "Hegaztiak lantzen bagaude...eiztariei (aditu bezala) galdetu edo etxean galdetzeko... 	<ul style="list-style-type: none"> - ikasleek eskertu zuten ondo egiten zutena aipatzea - batxilergoan ez daude ohituta gauza positiboak esatean. Arraro samarra egin zitzaien. - aldaketa nabaria da - Eskertzen dute goraipatzea baina ikasleak ez daude ohituta <p>Oso positiboa</p> <p>Bere klasean oso ondo kokatu da ikaslea. Erlazioak estutu dira.</p> <p>Oso erabilgarria baloratu da eta geletan tutoreaz gain beste irakasleei pistak ematen dizkie.</p> <p>Aberastasun emozional pertsonalizatua. Edozein kasuan ondo baloratu.</p> <p>" Aste honetan oso pozik nago/gaudejarrera aipatu, araua aipatu.., jarduera aipatu...Txikiekin (HHan) oso positiboa bainan edozein adinean baloratu da.</p>
---	---

2.9 Ezabatu eta hutsetik hasi:

Egun bakoitza eta ikasgai bakoitza aukera berri bat da.

NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - ikasle batekin arazoak eduki zituen irakasle batek. Eskua eman zion berriro hasiko zirela esanez, beste kideen aurrean eta portaera aldatu zuen. - Egun batean ikasleak oso astoratuta zeuden gelan eta irakasleak esan ziren: <i>borrón y cuenta nueva</i> egingo dugu. Denak harrিতuta, zer ote zen hori. Gelatik atera ziren 5 minutu eta gelan sartzerakoan dena ahaztuta zuten eta ondo egon ziren, eten hori eginez. - LHN umeeak ohitura dute esateko "eske atzo..." - HHn arazoren bat egon bada ikasleren batekin, gelako sarreran hurrengo egunean galdetu ea aldatzeko prest dagoen, eman bostekoa eta bere izena arbelean idatzi. - Jokabide desegokia duten ikasleei ondo etortzen zaie - Konpromisoa sinatu, idatzi nola irudikatzen duzun klasea - Ingeleseko irakasleak "Golden rules" adostu eta idatzi ditu ikasleen eta kortxoan ipinita dauzkate. - Klasea isilik eta begiak itxita hasi 5 minututan. Egiten ez denean ikasleek eskatu egiten dute. - Ikasleekin eta familiekin erabiltzea oso positiboa. Ad: Bihartik aurrera... - Irakasleekin (zuzendariek esanda) ere funtzionatzen du. - Ikasle batekin zerbait gertatu denean..."gaur hau eta hau gertatuko da esatea" espero dena era positiboan esatea, hala espero dugulako. - Ikasleak ere ohitzen dira eta beraiek ere erabiltzen dute: gaur ondo portatuko gara/naiz..." 	<ul style="list-style-type: none"> - Besteen aurrean esateak eraginkorra da - Beste aukera batzuk ematea ondo etorri zaie. - Denei gustatzen zaie bere izena arbelean idatzita egotea. Pizgarria da. - Entrenamendu asko behar du. Praktikatzea eskatzen du. - Espektatibekin lotuta dago - Aukerak ematen dizkigu. Txirrikitu bat irekitzea, aukera berriak eskeintzen dizkigu bideak itxi gabe. - Oso positiboa -

2.10 Ikasleak esan dizkizun gauzak gogoratzea, errepikatzea eta interesa agertzea.	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - HHn berehala ahaztu egiten zaie ikasleei. - Profil sozialean komentatutako pasarte beretsuak esan dira - Esandakoa gogoratzeko idaztea komeni da bestela ahaztu daiteke. - Galdeketa sortu dute, zaletasunen inguruan, gustuko dituzten ekintzak, kirolak, egitekoak...Eta jaso egin dituzte. - Jolas-tokian kontutakoak gogoratu eta klasean emandako adibideekin txertatu 	<ul style="list-style-type: none"> - Harremanak estutzea.

<ul style="list-style-type: none"> - Pasiloetan topatzen garenean edozein atxikiarekin, aurpegira begira..galdetzea, aipatzea... - EPAn ere oso erabilgarria. Hizkuntza arazo larriak dituztenek eskatzen dute irakasleek esaerak esatea (ikasleen gauzei buruz) eta beraiek errepikatu egiten dituzte. Esamoldeak errepikatu,.. - Harreman modura, sarreran erabiltzea eta sistematizatzea. - Oso disruptiboa den ikasle batekin erabili dira halako estrategiak eta....oso ondo. - Muralean ditugun gauzak erabiltzea, gogoratzea, ...Astelehenean kontatzea zerbait... - Gelako ormetan ipintzeko apaingarriak bere giza perfilekin. Koloreak sartu, gela koloretsu bat lortu, ...Notiziak bere gustoko gaien inguruan, ekartzea, ekintzak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Emaitzak jasotzen ari dira. - Emaitzak jasotzen ari dira. - Asko gustatzen zaie eta gela ezagutzeko aukera ematen digu. <p>Ikasleen mundua gelara ekartzea eta loturak bilatzea egiten dugunarekin.</p>
---	---

2.11 Irakaslea aurkeztea: Irakasleak berari buruz hitz egitea, bere bizitzaz, esperentziaz...	
NOLA?	ONDORIO POSITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Asko egiten den estrategia. Irakasleak bere pazadizoak kontatzen dituenean "el abuelo cebolleta"ko kontuak esaten du. - Ikasle bati aita hil zitzaion eta portaera txarra azaltzen ari zen. Irakasleak berari txikitzen gauza bera gertatu zitzaioela kontatu zuen eta ikaslearen jarrera guztiz aldatu zen. - Irakasleen kontuak, pasadizoak, istorioak...asko gustatzen zaizkie. Ikasleen artean pasatzen dira halako istorioak ..eta beste gelakoek eskatzen dute halako kontaketa...Eta hau gertatzen da edozein adinean...DBHn ere, bi urte beranduago ikasleek galdetu eta eskatzen diote irakasleari kontaketa hura. - 1. DBHko gela batean, lehenengo egunetan, harremanak estutzeko " La maleta" estrategia erabili zuten (3 tresna bakoitzak) eta irakasleek ere parte hartu zuten. - Irakasleek halako interbentzioak eskatzen dituzte. Konfiantza eta giro berezia lortzen da. - Loturak bila daitezke gelan landu behar diren gaidekin. Ad: Eskutitza testu bezala landu behar denean...., lanbideak ..., - Irakasle batek (ingeles irakaslea) aipatu du bere bizitzan sekulan lehen ez zuen ezer kontatzen (aseptikoa) eta orain bai eta a ze interesgarria den aipatu zuen. - Txikitako gauzak, oroimenak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek irakaslea hurbil sentitzen dute. - Asko gustatzen zaie, irakaslea gertuago sentitzen dute. • Oso polita eta interesgarria. Emozioak "a tope" eta ikasleak erabat sartu ziren. Ad: Orain dela gutxi hildako aitonaren argazkia erabiliz nola berarekin perretxikoak biltzera joaten zen...". Irakasleen aportazioak ere oso interes handiarekin.

- Lagunak....	
---------------	--